

## FUNTSEZKO ELKARTEAK

Lehenik eta behin, emakumezkoen indarkeriaren aurkako Basaurin dagoen elkarte batekin batu produktua saltzeko elkartuko gara (Marienea), elkarte horren emakumeak publizitatea egiteko, hau da: Institutuetara edo jaietan egiten dituzten hitzaldietan emakumeak haien esperientziak kontatzeko, batez ere jende gazteari, hauek kontzientziatzeko eta horretaz baliatuz, gure produktua jendearen aurrean aurkezteko.



Gero, gure ideia segurtasun enpresa bat sortzea da, non enpresa horretan langabezia dauden pertsonen lana emango diegu. Beharrezkoa den gauza bakarra gidatzeko baimena izatea da, pertsonak botoan sakatzen dutenean, haiengana autoz azkarrago heltzeko. Horretaz aparte gure eskumuturrekoak eta erlojuak egiteko (Lanbide eta Sepe).



Beste ideia bat teknologia enpresa batekin elkartzea izango litzateke, gure produktua behar dituen teknologia programak, adibidez eskumuturreko barruan Txip GPS-a garatzeko. Hau da, txip GPS-ak arazorik gabe lokalizazioa gure ordenagailuetara bidaltzeko. Hortaz aparte, gure produktua saldu ahal izateko web orrialde bat sotu behar denez, haiek diseinua eta guztiz egiteko.



Lehen esan dugun moduan, gure produktua urarekiko erresistentea izango da, beraz, kostaldeko portuekin kontaktuan egon behar gara, itsasontzi bat prest izateko, itsas zabalean zerbait gertatzekotan. Horretarako ere, itsasontziak gidatzeko baimena duten pertsonak kontratatu behar ditugu, itsasontzi batekin haien bila joan ahal izateko.